

# RASFF TXOSTENA

ALERTAK eta JAKINARAZPENAK



**ELIKAGAIAK**

2013ko URTEKO TXOSTENA

Jakinarazpenen kategorizazioa  
Alerta eta jakinarazpenen kopurua  
Antzemandako arriskuen jatorria  
Antzemandako arriskuak  
Azken urteen arteko konparazioa


## JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA

2013 urtean zehar, elikagaiei buruzko 2653 jakinarazpen izan dira. Horietatik, 528 **alertak** (%20) izan dira, 908 **informazio-jakinazpenak** (%34) eta 1217 **mugan egin diren ukapenak** (%46).



## ALERTA ETA JAKINARAZPENEN KOPURUA



**2013an**, Europako Alerta azkarra sistemaren (RASFF) bidez **2653 alerta eta jakinarazpen** jaso dira.



## ANTZEMANDAKO ARRISKUEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorriari dagokionez, urtean zehar, aipatu behar da **Asiak (%40)** eta **Europak (%37)** eragin dituztela jakinarazpen gehienak. Asia jatorria duten jakinarazpen kopurua jeitsi egin da eta europa jatorria dutenen kopurua aldiz, igo, 2012 urtearekin konparatuz. Afrika eta Amerikako egoera berdintsu jarraitzen du.



Urteko batezbestekoak hurrengoak izango lirateke:



## ANTZEMANDAKO ARRISKUAK


Aurreko urtean bezalaxe, **kutsadura biologikoak** eragin ditu jakinarazpen gehien, aurreko urtekoa kopurua igoz. **Micotoxinak** dira jakinarazpen gehien sortu dituzten bigarren taldea, hirugarren urtea jarraian.

Hauek dira antzemandako arriskuei dagozkien urteko neurriak eta lauhilekoka izan duten bilakaera:




.....ANTZEMANDAKO ARRISKUAK


**KUTSADURA BIOLOGIKO**aren kasuan, **Salmonella** nabarmendu behar dugu kutsadura biologikoen **%51a** eragin baitu, (urteko batez bestekoa). Honako hau izan da kutsadura biologikoen izan duten joera:



Badira Salmonella espezie batzuk giza osasunerako arriskutsuak direnak (*S.typhimurium* y *S.enteritidis*) eta bestelako Salmonellak, azken hauek, Salmonellas exotikoak, nabarmendu behar dugularik (%84). Produktu kaltetuei dagokionez, exotikoen eta *S.enteritidis* artean oilaskoa. Urteko eboluzioa izan da:




**MICOTOXINEN** kasuan, kasu gehienak (**%70**) **Aflatoxinek** eragin dituzte, **kakahueteek** kutsadura kasuen **%43a** eragin dutelarik. Kasu gehienetan produktuen jatorria Txina zen.




.... ANTZEMANDAKO ARRISKUAK

**PESTIZIDA ETA BOTIKEN HONDAKINEI** dagokionez, urteko batez bestekoa kontutan hartuz, **pestizidek %75a** suposatu dute, **barazkiak %58** suposatuz. **Botiken hondakinak (%25) elikagaien osagarriak** protagonista izan dituzte, **%40a** suposatuz eta EEBBko jatorria izanez kasu gehienetan.

Urteko eboluzioa hurrengo hau izan da:



**Merkurioa** jarraitzen du **metal astunen** protagonista izaten (**%64**), kasu gehienak **ezpatarrainak** eragin dituelarik, **%67<sup>a</sup>**. **España** jatorria izan da **%49**ko kasuetan.



## AZKEN URTEEN ARTEKO KONPARAZIOA

Azken urteak alderatuz gero, jasotako alertak zein jakinarazpenak aldatutu egin dira urtetik urtera. Hainbat aldaketa gorabehera, oro har antzeko joerak antzeman dira.

